## Eguraldia lagun ez izan arren, hezkuntzako milaka langile, familia eta ikaslek hartu dute parte eta batu dira ikasturte seguru eta adostu baten alde sindikatuok gaurko deitutako manifestazioetara

### Urriak 7ko bileran, sindikatuok gure eskoletan osasuna zein hezkuntza bermatzeko eskaerei erantzuten dioten planteamendu, neurri zein baliabideak mahai gainean jartzeko galdegiten diogu EAEko Hezkuntza Sailari

Sindikatuok pasa den ikasturteko maiatza hasieratik ari gara ikasturte honetarako planifikazio bat zein beharrezkoak diren neurri zein baliabide gehigarriak adosteko negoziazio bideak ireki eta abian jartzeko galdegiten Hezkuntza Sailari. Pasa den ikasturtea, aurrez aurreko ikasturte seguru eta adostu baten aldeko mobilizazioekin amaitu genuen eta hau greba egun bat barneratu duen mobilizazio dinamika batekin hasi dugu. Horrela aurrez aurreko ikasturte hasiera abian jartzea posible izan bada, ikastetxeetako zuzendaritza taldeen zein langileen inplikazio zein lanari esker izan da, Hezkuntza Saila izan baita pandemiaren kudeaketan kale egin eta erabat desagertua egon dena.

Hezkuntza Sailaren aldetik, ez da bere ekimenez eskaera horren bidetik doan pausorik eman nahi izan ikasturte hasiera honetan ere. Alde batetik, aldebiko aurkezpenezko bileretaz haratago, eduki, neurri eta baliabide zehatzen inguruko negoziazio bilera deialdirik ez zaigu iritsi Jaurlaritzaren ekimenez. Datorren astean sindikatu guztiok Hezkuntza Sailarekin izango dugun bilera deialdia lortzeko ere, ezinbestekoak izan dira bai sindikatuok, bai ikastetxe, familia zein kolektibo ugarik azken asteotan gauzatutako mobilizazio zein ekimen desberdinak. Bestetik, azken egunotan Hezkuntza Sailak aldebakarreko erabakiak hartzen jarraitu du, besteak beste, sukalde eta garbiketako sektoreetan langileen ordezkariekin negoziatu gabeko kontratazio prekarioak eginik. Sektore hauetan  berriro ere inprobisazioak gidaturik, eraginkortasun oso mugatua izango duten zein planifikazio zehatz bati erantzuten ez dioten errefortzurako kontratazioak egin dituzte, langile hauen prekarizazioan sakontzen duten lau hilabeterako kontratuekin.

Urgentea da, osasun krisiak eragindako ikasturte honetan, hezkuntza sailak dagokion ardura bere gain hartu eta gure eskoletan osasuna zein hezkuntza bermatuko duten neurri zein baliabideak modu adostu batean planifikatu eta ikastetxeengana helaraztea lehenbailehen. Horrela ari gara langileak, familiak zein ikasleak galdegiten ekimen eta mobilizazio anitzen bitartez.

Azken egunotan ere, gaurko manifestazioen bitartez zein aurreko mobilizazio guztien bitartez aldarrikatzen ditugun eskaeren aldeko ehundaka atxikipen jaso ditugu, bai ikastetxe publiko, zein ikastola eta gizarte ekimeneko langile, klaustro, zuzendaritza taldeenak, bai Haurreskoletako langileenak, bai Guraso Elkarte askorenak, zein ikasle mugimenduenak ere. Eguraldia lagun ez izan arren, gaurko manifestazioetan beraietan ere, milaka izan dira parte hartu duten langile, familia eta ikasleak.

Gure eskaerak argiak dira eta horregatik Hezkuntza sailari eskatzen diogu urriak 7an izango den bilerara egoerak eskatzen dituen planifikazio integral eta irizpide komunak zein beharrezko baliabide gehigarriak negoziatzeko prest eta langileon ordezkariak mahai gainean jarri ditugun eskaerei erantzungo dioten planteamenduekin agertu dadila.

Euskal Herrian 2020ko urriak 2an

ELA EUSKAL SINDIKATUA · LAB >irakaskuntza · steilas · CCOO irakaskuntza · UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi

## A pesar del mal tiempo, miles de personas trabajadoras de educación, familias y estudiantes, han participado en las manifestaciones convocadas para hoy por todos los sindicatos, por un curso seguro y consensuado

### Para la reunión del próximo 7 de octubre con el Departamento de Educación de la CAV, los sindicatos demandamos que se pongan encima de la mesa planteamientos, medidas y recursos que respondan a las demandas de los sindicatos para garantizar la seguridad y una educación de calidad

Los sindicatos venimos reclamando desde principios de mayo del pasado curso al Departamento de Educación la apertura y puesta en marcha de vías de negociación para acordar, tanto una planificación, como los recursos adicionales necesarios para este curso. Ante la inacción del departamento nos vimos obligados a finalizarlo con movilizaciones a favor de un curso presencial seguro y consensuado y hemos tenido que comenzar de nuevo con una dinámica de movilizaciones que ha incluido una jornada de huelga. Si de alguna forma ha sido posible poner en marcha el inicio del curso presencial, ha sido gracias a la implicación y el trabajo de los equipos directivos y del personal de los centros, porque el Departamento de Educación ha fracasado estrepitosamente en la gestión de la pandemia y permanece desaparecido por completo.

El departamento, más allá de las reuniones bilaterales de presentación, no ha dado ningún otro paso. Ha intentado evitar convocar una reunión negociadora sobre contenidos, medidas y recursos concretos. La noticia de la convocatoria de una reunión de todos los sindicatos con el Departamento de Educación para la próxima semana, solo ha llegado después de que tanto los sindicatos como los centros escolares, familias y colectivos hayan llevado a cabo diferentes movilizaciones e iniciativas en las últimas semanas. Además, en los últimos días – ha seguido adoptando decisiones unilaterales , con contrataciones precarias no negociadas con los y las representantes de los y las trabajadoras en sectores como la cocina y la limpieza. En estos sectores, guiados de nuevo por la improvisación, se han realizado contrataciones de refuerzo de eficacia muy limitada y que no responden a una planificación concreta, con contratos de cuatro meses que profundizan en la precarización de este personal.

En este curso marcado por la crisis sanitaria, el Departamento de Educación debe asumir la responsabilidad que le corresponde con urgencia y ha de planificar y trasladar a los centros escolares, de forma consensuada, medidas y recursos que garanticen la sanidad y la educación en nuestras escuelas. Eso es lo que reclamamos las personas trabajadoras de educación, las familias y el alumnado a través de múltiples iniciativas y movilizaciones.

En los últimos días hemos recibido cientos de adhesiones tanto de colegios públicos, como de trabajadores/as de ikastolas y centros de iniciativas social, claustros, equipos directivos, trabajadores/as de Haurreskolak, asociaciones de padres y madres, así como de sindicatos y movimientos estudiantiles, a nuestras demandas, tanto a las manifestaciones de hoy como todas las movilizaciones anteriores. Aunque el tiempo no ha acompañado, en las manifestaciones de hoy también han participado miles de trabajadores y trabajadoras, familias y estudiantes.

Nuestras peticiones son claras y por ello solicitamos al Departamento de Educación que acuda a la reunión del 7 de octubre dispuesto a negociar la planificación integral, los criterios comunes y los recursos adicionales necesarios que la situación requiere, y que venga con planteamientos que respondan a las demandas planteadas por la representación del personal.

En Euskal Herria el 2 de octubre de 2020

ELA EUSKAL SINDIKATUA — LAB >irakaskuntza — steilas — CCOO irakaskuntza — UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi